

TALAIAN

“Ardi beltzak”, artzain zuriak?

Roberto Zearsolo Guggenheim Museoko finantza arduradun ohiak eginiko ia milioi erdi euroko iruzurrak zeresan politiko eman du joan den astean. Aste honetan horren inguruko eztabaida parlamentarioa egingo da eta arreta judiziala ere eskainiko zaio. Museoko lehendakari nagusiak, Juan Ignacio Bidartek, agerraldia egin beharko du Eusko Legebiltzarrean eta auzitegian, ustezko iruzurgileak deklaratu beharko duen auzitegi berean. Orain arte ez du inork dimititu, ez ustezko iruzurgilearengan konfiantza izan zuten Bilboko museoko kudeatzaileek ezta hura aukeratu zutenetaz fidatu ziren politikoez ere. Eta okerrena da museoaren kudeaketaz arduratzen direnek, erantzukizuna “ard beltz”arena soilik izango balitz bezala jokatzeko dutela.

Herri Kontuen Euskal Epaitegia (HKEE) delakoaren arduradunek Bizkaiko Batzar Orokorren aurrean hitz egin zuten aurreko astean. Han esan zuten Tenedora sozietateak zein Guggenheimeko higiezin enpresak sozietate anonimoa eratu behar zutela auzitegiak eurak kontrolatu ahal izateko. “Auzitegiak kontu-ikuskapenen inguruan emandako aholkuak jarraitu izan balitzte irregulartasunak saihestu zitezkeen 1998az geroztik”, gaineratu zuten. Museoak ikuskapenen ohitura 2007an berreskuratu zuten, aurreko bederatzi ekitaldietan halakorik egin gabe egon ondoren. 1998 eta 2005 artean egin zituen, hain zuzen ere, museo finantza arduradun ohiak desbideratze ekonomikoak. Horregatik, ez da bidezkoa erantzukizun guztia finantza zuzendari ohiari, “ard beltza”ri egozte. Zer egin zuten “artzain zuriak” egoera hori saihesteko? Jakin denez ezer ere ez, HKEEren bidez aholkuak eman baino ez. Eta denak dira “artzain zuriak”, Bidarte zuzendari nagusitik hasi eta HKEEraino, tartean Eusko Jaurlaritzara ahaztu gabe. Beraz, ezin da “ard beltza” soilik begiratu.

Juan Mari Arregi

Arreta gutxi piztu duen Asanblea

FRANTZIAKO ASANBLEA NAZIONALEAN 577 diputatuetatik 50ek hartu zuten parte hizkuntza gutxituen eztabaidan. Dena dela, hizkuntza gutxituen aldeko diputatu zein herritarrek ez zuten asko esperoko asanblea hartatik. Ondorioa behintzat halakoa izan da: Christine Albanel Kultura ministroak esan du Konstituzioaren 2. artikulua ez dutelako aldatuko, legeak ez duela hizkuntza gutxituen ofizialtasuna onartuko eta Europako Hizkuntza Gutxituen Ituna ez dutela sinatuko.

Lege proposamena ezin onartu

NAFARROA BAI-KO Txentxo Jimenez parlamentaria oporretan baitzen. Aralarrek barkamena eskatu die NaBairen boto emaleei gertaera hankasartzetzat joz. Kontua da Ezker Batuak Aranguren, Galar, Beriain eta Noain (Elortzibar) eremu ez euskaldunetik mistora pasatzeko proposamena egin zuela. Gehiengo lortzeko 26 boto behar ziren. PSN, Ezker Batua eta NaBairen botoak nahikoa ziren, baina Jimenezen botoa falta zen. Agian, uda baino lehen beste bozketa bat egiteko aukera izango da.

BAHEA

Jose Maria Ruiz Soroa Aldaketa plataformako kideak *El Mوندon* esanak: “Ama hizkuntza jasotzeko eskubi-deaz hitz egitea zentzurik ez duen asmakuntza da. Ama hizkuntza ez den beste hizkuntza batean hezi izateak gaitzespena dakarrenik ez da egia. Gaitzespen sentimendua sortuko da umeak hizkuntza bat inposatua, behartua dela sumatzen badu”.

Konrado Mugertza, Euskadiko Eskola Kontseiluko presidentek *Deian* esanak: “Horrelako plataforma bat [gaztelaniaren defentsan agertu diren gurasoena] sortzea tamalgarria iruditzen zait, gaztelaniaren desagerpenaz hitz egitea iragarria delako (...) Inposaketei buruz hitz egin behar baldin badugu, niri Espainiako Konstituzioak inposatu dit gaztelaniak hitz egin behar dudala. Baina inposaketek inora eramango ez gaituzten bezala, euskalduna bezalako Estatu batek, herritarrek bi hizkuntza ofizialak ikas ditzaten bermatu behar du”.

Inazio Agirrek *Berrian* esanak: “Euskaldun eleaniztuzko Euskal Herria euskalduna baztertzeko, elebitasun sozialaren mitoa asmatu dute. Politika horrek hizkuntz berdintasuna ukatzen du, ez du hizkuntz gatazka konpontzen, ez asimilaziozko harremanak gaintzen. Defizit hori zuzentzeko, hizkuntza guttien iraunkortasuna bermatu behar da, bakoitzaren nagusitasuna ziurtatuz bere lurraldean”.



Ibarra sagardotegia s.l.g. Zornotza 943 73 11 00 info@ibarra-sagardotegi.com